EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN BATZORDEA

COMISIÓN DE DERECHO CIVIL VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA, 2021

---

2. zk.

00. Aurkezpena

Duela urtebete, gutxi gorabehera, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak Eusko Legebiltzarrarentzat egindako lehen txostena aurkeztu genuen. Agerpenean, Espainiako Konstituzioaren eta Estatutuaren esparruan foru-araubidea oro har eguneratzeko konstituzio-agindua mahaigaineratu nuen, zeina Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian jasotzen baita, aintzat hartuta euskal zuzenbide zibila –edo zuzenbide zibil foral eta berezia, Estatutuan ageri den moduan– eskubide historiko horien eta eguneratu behar dugun foru-araubide horren parte dela.

Bada, bigarren txosten honetan, 2021eko ekitaldiari buruzkoan, ekitaldi horretan egindako lanak aipatu behar ditugu, azken buruan, mugarri nabarmen bat ekarri baitzuten: Eusko Legebiltzarrak Euskal Kasazio Errekurtso Zibilari buruzko maiatzaren 19ko 4/2022 Legea onartzea. Bestalde, lege hari oniritzia eman zion osoko bilkurako agerraldian egin nuen bezala, gogorarazi nahi dut lege hori eskubide historiko bat berreskuratzea eta eguneratzea baino ez dela; hau da, foru-erakundeen eskumeneko gaietan foruak zehazten dituen epaileek epaitzea, foruak zehazten dituen arauei jarraikiz. Hain zuzen ere, hura zen bizkaitarren «pribilegio, askatasun eta zintzotasunetako» bat, Bizkaiko 1526ko Foruaren lehen tituluko XIX. legearen arabera, eta erregeak zin egin behar zuen nahitaez, halakotzat hartu ahal izateko.

Zuzenbide hori, prozesala eta judiziala, gaur egungo kasazio-errekurtso zibilaren baliokidetzat har genezakeen, eta 29. tituluko IV. legean zehazten zen gero. Bertan, Valladolideko Kantzelaritzaren barruan Bizkaiko epaile nagusiaren aurrean aurkeztutako apelazio-errekurtsoa arautzen zen, eta forua idatzi zutenek argi eta garbi adierazten zuten epaileek, aurkezten zitzaizkien kausetan, «erresumaren zuzenbidearen edo zuzenbide erkidearen arabera» jokatu beharrean, Bizkaiko Foruaren arabera joka zezatela, lehentasunez aplikatzen baitzitzaien, eta ahal zen neurrian, lurreko auziak Bizkaian ebatz eta burutu zitezela.

Hau da, Gernikako Estatutuaren 14. artikuluak xedatutakoak duen helburu berarekin: oro har, auzi zibilak, instantzia eta maila guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoko jurisdikzio-organoetan burutzea. Bereziki zuzenbide propioa aplikatzen dutenean, horrela hobeto interpretatu eta aplika daitezen, eta, horren ordez, zuzenbide erkidea aplika ez dadin, propioa aplikatu behar denean.

Olatz Garamendi
Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko presidentea

01. Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea (EZZB) Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak sortu zuen.

Zehazki, lege horren lehen xedapen gehigarriaren arabera, Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren kontsulta- eta aholku-organoa da, eta bere misioa izango da euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea eta arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatzea.

Xede horrekin eta hura garatzen duten estatutuetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, honako eginkizun hauek dagozkio, zehazki:

a) Euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea, batez ere lege-erreformak egiteko beharrizanari buruzko irizpenak emanez, erreforma horien helburua denean indarrean dauden xedapenak finkatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, edo euskal legeria unean uneko errealitate sozialera egokitzea, erakunde berriak arautzeko egokitasunari buruzko azterketak egitea barne, hala badagokio.

b) Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea, barruan hartuta, idatzizko arauez gain, ohiturazko zuzenbidea eta euskal zuzenbide zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko xedez eta aurreko letran aipatzen den garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez.

c) Zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea, euskal zuzenbide zibilaren legegintza-garapenak eta aplikazioak izango duten Estatuko eta Europako arau-esparruaren alorrean, baita Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak eska dezaketen aholkularitza ematea ere, batez ere erakunde horiei Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren tramitazioa dela eta kontsultak egiten dizkietenean.

d) Eskatzen dizkioten lege-aurreproiektuen eta xedapen-proiektuen zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne, eta, era berean, Batzordetik ateratzen diren testuetan aplikatzea indarrean diren legegintzako teknikaren zuzentarauak eta egin beharreko lege-proiektu, dekretu, agindu eta ebazpenak egitekoenak. Era berean, euskararen erabilera sustatuko da euskal zuzenbide zibilaren adierazpen-hizkuntza bezala, eta bere terminologia juridikoaren azterketa, bultzada eta zabalkundea, Euskaltzaindiarekin, Eusko Legebiltzarrarekin, Herri Arduralaritzaren

Euskal Erakundearekin eta horretarako egoki irizten dituen gizarte eragileekin elkarlanean.

e) Europan eta Estatuan oro har onartzen diren erregulazio onaren printzipioak bermatzea, bai eta administrazio-prozedurako oinarrizko legeriak zein euskal sektore publikoaren gobernantza onak eskatzen dituenak ere, eta, era berean, kontuan hartzea edo sustatzea indarrean dauden arauen emaitzen ebaluazioak eta, eskatzekoak direnean, egiten dituen araugintza-proposamenen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.

f) Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularrari aholkularitza ematea, eta, hala badagokio, Administrazio Orokorraren gainerako sailei eta, era berean, baita Batzordearekin harremana izateko ardura daukan Legebiltzarreko organoari ere, eskatzen duten guztietan.

g) Artikulu honetan ezarritakoez gain edo haien osagarri gisa, zuzenbide zibilaren alorrean eskumena duen saileko titularrak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

Organikoki, Batzordearen estatutuek xedatutakoaren arabera (urriaren 4ko 140/2016 Dekretuak onartu zituen, eta haren funtzionamendua ez ezik, dagokion sailaren egitura organikoarekin eta funtzionalarekin lotutako indarreko arauak ere arautu zituen), Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago, eta, gaur egun, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokio, lehendakariak agindutako sailen arteko arloen eta eginkizunen banaketaren arabera.

02. Eusko Legebiltzarrarentzako txostena

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuen 7.j) artikuluaren arabera, zera dagokio batzordeburuari: «Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen jardunari buruzko urteroko txostena igortzea Eusko Legebiltzarrari, honen ezagutza hutserako».

Batzorde honek iaz Eusko Legebiltzarrari zuzendutako lehen txostenean, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen hiru urteko ibilbideari buruzkoan (2018., 2019. eta 2020. urteak), finkatu zenez, hainbat egoeraren eraginez (alde batetik, organoari berari datxezkionak, hasiera guztietan gertatu ohi den moduan, erakunde sortu berria izateagatik eta lehen lanak abian jartzeko eta egiteko zailtasunak izateagatik; bestetik, kanpokoak edo organoaren barne-funtzionamenduarekin zerikusirik ez dutenak, hala nola pandemia, ezarritako hauteskunde-prozesuak edo gobernuaren eta kideen berrosaketa), hasiera atzeratu zen, eta, ondorioz, txostena egin, eta hurrengo urteetako txostenak beranduenez dagokien aldiaren ondorengo urtean egiteko konpromisoa hartu zen.

Ondorioz, eta hartutako konpromisoari jarraikiz, txosten honetan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak 2021eko ekitaldian egin duen lana azaltzen da, eta horren berri eman zitzaion aholku-organoaren osoko bilkurari 2022ko ekainaren 30eko ohiko bilkuran.

03. Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen barne-egitura eta funtzionamendua, 2018tik 2020ra.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak honako organo hauek izango ditu:

- **Batzordeburua**

Zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen saileko titularra da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko burua; gaur egun, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua da, **Olatz Garamendi Landa**.

Hori horrela, batzordeburuari dagokio, besteak beste, organoa ordezkatzea, osoko bilkuraren bileretarako deia egitea eta bilera horien buru izatea, eta osoko bilkurak Batzordeari egindako proposamenen erantzuna Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko agintzea, barne hartuta, hala badagokio, proposamen horiek, azterlanak edo txostenak argitaratzea.

- **Osoko bilkura**

Dagokion estatutu-aurreikuspenaren arabera, Batzordearen osoko bilkura osatzen dute batzordeburuak eta batzordekideek. Kide horiek mundu juridikoko eta, bereziki, zuzenbide zibilaren esparruko hainbat erakundek eta eragilek izendatutakoak dira, eta, beren eginkizuna betetzeko, objektibotasunez eta independentziaz jardun behar dute.

Batzordekideek isilpean gorde beharko dituzte proposamenak, irizpenak eta txostenak, harik eta dagokion araua onartzen den arte edo, izapidetu behar ez badira, batzordeburuak kontrakorik adierazi arte. Betebehar hori lanen egoerari eta bileretan izandako eztabaidei, iritziei eta botoei dagokienez ere bete behar da.

Batzordearen osoko bilkurak urtean ohiko bilera bat egiten du, gutxienez; ezohiko bilera, berriz, batzordeburuak deialdia egiten duen bakoitzean egiten da, bere kabuz edo osoko bilkurako heren batek eskatuta.

Gaur egun, honako pertsona hauek osatzen dute osoko bilkura:

- Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, zuzenbide zibilaren arloko eskumena duen aldetik, honako hauek izendatu ditu sail horretako goi-kargudunen artean: Sabino Torre Díez; Jone Berriozabal Boveda (2021eko martxoaren 24tik) eta Jon Iñaki Urbina García de Vicuña (2021eko martxoaren 24tik).

- Eusko Legebiltzarrak izendatuta: Leire Imaz Zubiaur; Juan Carlos Martinez Llamazares eta Juan Antonio Arieta-Araunabeña Ibarzabal (2021eko martxoaren 24tik).

- Arabako Batzar Nagusiek izendatuta: José Jaime Tapia Parreño.

- Bizkaiko Batzar Nagusiek izendatuta: Nazario de Oleaga Páramo.

- Gipuzkoako Batzar Nagusiek izendatuta: Luis Elicegui Mendizabal.

- Emakundek izendatuta: Elixabete Piñol Olaeta.

- Lehendakaritzak izendatuta, Europako gaien gainean eskumena duen saila den aldetik: Juan Jose Alvarez Rubio.

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak izendatuta, familia-politikaren arloan eskumena duen saila den aldetik: Francisco de Borja Iriarte Ángel.

- Lan eta Enplegu Sailak izendatuta, gizarte-ekonomiaren arloan eskumena duen aldetik: María Arantzazu González López (2021eko martxoaren 24tik).

- Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsuak izendatuta: Jorge Sánchez Moreno.

- Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak izendatuta: Jone Elizarán Arruabarrena

- Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak izendatuta: José Miguel Gorostiza Vicente.

- Arabako Prokuradoreen Elkargo Ohoretsuak izendatuta: María de las Mercedes Marco Sáenz De Ormijana (2019ko ekainaren 19tik).

- Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Ospetsuak izendatuta: Jaime Villaverde Ferreiro.

- Gipuzkoako Prokuradoreen Elkargo Prestuak izendatuta: Juan Ramón Álvarez Uria.

- Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuak izendatuta: Mario Martínez de Butrón Martínez; José María de La Peña Cadenato eta Diego María Granados de Asensio (2019ko ekainaren 19tik).

- Zuzenbidearen Euskal Akademiak izendatuta: Andres Urrutia Badiola.

- Erregistratzaileen Elkargoaren Euskal Herriko Lurralde Dekanotzak izendatuta: Germán Barbier Gaminde; Asier Fernández Ruiz eta María Begoña Ruiz Alutiz (2019ko ekainaren 19tik).

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak izendatuta: Jacinto Gil Rodríguez.

- Deustuko Unibertsitateak izendatuta: Oscar Monje Balmaseda.

- Mondragon Unibertsitateak izendatuta: Izaskun Alzola Berriozabalgoitia.

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten magistratuen artean: Edmundo Rodríguez Achútegui (2019ko abenduaren 17tik).

- Fiskaltzak izendatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten fiskalen artean: Jesús Izaguirre Gerricagoitia.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2021eko Ekainare 30eko Osoko Bilkura

Iñigo Urkullu Lehendakariaren hitzaldea Euska Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2021eko Ekainare 30eko Osoko Bilkuran

- **Idazkari nagusia eta Komite Teknikoa**

Batzordeburuaren menpean idazkari nagusi bat dago. Haren egitekoak dira lanak koordinatzea eta lan horietan laguntzea eta beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu administratiboak betetzea. Zerbitzu horiek zuzenbide zibilaren arloan eskumena duen sailari atxikita dauden langileek betetzen dituzte.

Zuzenbide zibilaren arloan lege-garapenari dagokion eskumena esleituta duen organoaren titularra da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko idazkari nagusia. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa arautzen duten arauen arabera, Eusko Jaurlaritzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza da organo hori, eta Xabier Unanue Ortega da titularra.

Hala, bere zuzendaritzapean jarduten du Batzordearen Komite Teknikoak. Komite hori, funtsean, zerbitzu juridiko zentraletako edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailetako aholkularitza juridikoetako letraduek osatzen dute, eta Batzordearentzat lan egiten du, bai modu iraunkorrean bai txosten edo lan jakin bat egiteko modu berezian.

Era berean, inolako ordainik gabe, batzordeburuak izendatutako laguntzaile atxikiek edo osoko bilkurako kideak izendatzen dituzten erakundeek proposatutako ospe handiko legelariek ere parte hartu ahal izango dute Komite Teknikoan.

Komite Teknikoari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Araugintza-testuen aurreproiektuak eta proposamenak prestatzea eta idaztea.

b) Euskal zuzenbide zibilaren arauen aurrekariak aztertzea, oraingoak edo historikoak, baldin eta horrek zuzenbide horren aplikazioari buruzko irizpenak emateko balio badu edo zuzenbide hori kontserbatzeko, mantentzeko eta garatzeko balio badu.

c) Arauen gaineko ebaluazioak egitea; esate baterako, praktika zibil eta judizialaren eraginaren eta errealitatearen gaineko datu estatistikoak biltzea, Eustaten (Euskal Estatistika Institutua) eta antzeko erakundeen laguntzarekin, eta notarioen estatistiken eta estatistiketarako eta azterketak egiteko Justizia Administrazioak eta Botere Judizialak dituen tresna eta baliabideen laguntzarekin.

d) Euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzeko behar diren beste azterlan batzuk egitea, batez ere lege-erreformak egiteko

beharrizanari buruzko irizpenak emanez, erreforma horien helburua denean indarrean dauden xedapenak finkatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, edo euskal legeria unean uneko errealitate sozialera egokitzea; eta, hala badagokio, erakunde berriak arautzeko egokitasunari buruzko azterketak egingo ditu.

e) Osoko bilkurari egotzitako beste zereginetan laguntzea, hura bilduta ez dagoen bitartean.

04. EZZBren jarduketak 2021. urtean.

- **Osoko bilkurak eta jarduera orokorra**

2020ko nahitaezko geldialdiaren ondoren, COVID-19ak sortutako egoeraren eraginez, 2021. urtean ekin zioten Batzordearen osoko bilkurek beren jarduerari. Hain zuzen ere, 2021eko ekainaren 30ean, urte horri zegokion urteko osoko bilkura egin zen. Osoko bilkura hori pandemia-egoeran egin zen, eta segurtasun- eta higiene-neurri guztiak bete ziren. Gainera, bertan izan zen Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.

2021ean, 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuran adostu ziren zereginen ildoari jarraituz, eta 2021eko ekainaren 30eko osoko bilkuran onartu zen 2021erako jarduketen eta jardueren plana betez, osoko bilkura osatzen duten organoek behean adieraziko diren jarduketak gauzatu zituzten. Jarduketa horiek, organoaren estatutuen 5. artikuluak eta Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2018. eta 2019. urteetarako onartutako jarduketa-planari eta urteko jardueren planari jarraituz, honako ardatz hauen gainean egituratzen ziren (ardatz horiek erabiliko ditugu, hain zuzen, egindako jarduketak azaltzeko):

- **Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea**

Batzorde honek Eusko Legebiltzarrarentzat egindako lehen txostenean adierazi zenez, Batzordea abian jarri zenetik, eta 2015etik aurrera euskal zuzenbide zibilaren arloan izandako aldaketa garrantzitsuak kontuan hartuta, organo honek proiektu garrantzitsu bat ezarri zuen: aldian-aldian, euskal zuzenbide zibilaren egoerari eta ebaluazioari buruzko ikerketa bat egitea. Lehenengo ikerketa 2015-2018 aldiari buruzkoa izan zen.

Ebaluazio horren bitartez, egia bihurtu beharko litzateke estatutuek Batzordeari agintzen diotena; hau da, «indarrean dagoen zuzenbidea sistematikoki aztertu eta berrikustea, barne hartuta, idatzizko arauez gain,

ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide Zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko eta haren garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez». Eta, lehendabiziko proposamenetik, ikerketak helburu zuen euskal zuzenbide zibilaren abiapuntu-egoera baloratzeko lehenengo urratsa izatea, euskal zuzenbide zibilaren garapena une oso berezian dagoelako; lehen aipatutako legeak indarrean jarri direnetik eginiko jarduna ebaluatuko da, Batzordean egin daitezkeen hausnarketak eta eztabaidak bultzatzeko.

Bada, 2020ko pandemiaren erdian ere gelditu ez ziren ebaluazio-lan luzeen ondoren, Legebiltzarrarentzako iazko txostenean aurreratu zenez, 2021eko txostenak aztertzen duen ekitaldia, azkenean, lehen ebaluazio hori onartu zen urtea izan zen; Batzordeak 2021eko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zen. Onarpen horretatik, osoko bilkuran ere finkatu zen moduan, hainbat ondorio positibo nabarmendu behar dira:

Lehenik eta behin, orainari begira, zuzenbide zibilaren ezagutza eta zabalkunde soziala bultzatzeko berez garrantzitsua den elementu gisa; izan ere, ebaluazioak berak agerian utzi du zabalkunde hori bultzatzeko beharra, eta ezagutza hori areagotzeko oso material garrantzitsuak eskaintzen ditu.

Bigarrenik, eta orainaldian finkatuta egoteari utzi gabe, etorkizuneko garapenek aurrera egiteko eta behar ditugun hausnarketa ugariei bide emateko oinarriak eraikitzen hasteko lehen urrats gisa.

Emaitza, zentzu horretan eta arrazoi horregatik, bikoitza da, eta osoko bilkuran onartu zena ere bikoitza da; izan ere, ebaluazioa bi dokumentutan gauzatu zen: alde batetik, «laburra» (5/2015 Legea, 7/2015 Legea eta 2/2003 Legea ardatz hartuta), eta bestetik, «espektro zabalekoa».

Dokumentu laburra, zehazki, zuzenbide zibilaren arloan orain arte egin diren lege garrantzitsuenei buruzkoa da, arauen eta arazo praktikoen benetako aplikazioaren esperientziarekin. Ez da ahaztu behar, 2020an, 5/2015 eta 7/2015 legeen egokitzapenaren eta 2/2003 Legearen aldaketaren bosgarren urteurrena bete zela, eta aparteko aukera izan zela legeok sakonago ezagutzeko eta zabaltzeko, dokumentu honek egiten duen moduan.

Bestalde, bigarren dokumentuan euskal zuzenbide zibilari eta haren aplikazioari lotutako lege eta gai guztien azterketa integrala egiten da, azterketa-aldian eta aurreko aldiarekin alderatuta, 3/1992 Legea onartu zenetik 2015era bitarte. Hori horrela, bigarren dokumentuak aukera ematen du lege horiekin eta zuzenbide zibil eta pribatuko beste eduki askorekin egon daitezkeen aukerak aztertzeko, zerikusia duten askotariko euskal legeekin lotuta, eta arau horien aplikazio eraginkorra ez ezik, aplikazio horrek dituen arazo praktikoak ere jorratzen ditu. Hori guztia bat dator Konstituzio Auzitegiak

garatutako «konektibitate-printzipioarekin», bai eta batzorde honek 2017tik hasi dituen lan eta proiektuekin ere. Gainera, ez dio uko egiten Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak agintzen duen foru-araubidearen eguneratze orokorra gauzatzeko aginduari, Espainiako Konstituzioaren eta Gernikako Estatutuaren barruan.

Bi dokumentuak elkarren osagarri dira, eta, gure ustez, asko lagunduko dute euskal zuzenbide zibilaren etorkizun hurbilean.

Era berean, azpimarratu behar da bildutako datu guztiei edo landutako gaiei erreparatuz gero, orain arte ez dela horrelako ebaluazio sakon eta ireki bat egin. Ez Euskal Autonomia Erkidegoan, ez beste autonomia-erkidego batzuetan. Horri dagokionez, lana eredugarria da, eta bidea irekitzen du. Horregatik bakarrik, eskertzekoa da parte-hartzaile guztiek egindako lana. Baina horrek ez du esan nahi lan honen emaitzak guztiz lortu ahal izateko 2019-2022 aldiko hurrengo ebaluazioarekin jarraitu beharko ez denik, ezta gaikako azterketa laburragoak egin beharko ez direnik ere.

Dokumentu horiek onartzearekin batera, eta 2021erako jarduketen eta jardueren planaren zati gisa (2021eko ekainaren 30eko osoko bilkuran onartu zen), erabaki zen 2015-2018 aldiaren ebaluazio orokorra egiteko egindako ahalegin handiaren ondoren, Batzordearen ahaleginak beste bi jarduketa-ildotara bideratuko zirela 2021eko gainerako 6 hilabeteetan:

Alde batetik, biltzen diren datuen kalitatea eta iturriak eta informazioa hobetzen saiatuko gara, kasuan kasuko erakunde eta organoekin lankidetzan, bereziki, 2015-2018 aldiaren ebaluazioak agerian utzi badu datuak biltzeko modua edo datu horietara iristeko banakatze-maila ez dela nahikoa edo hobetu daitekeela. Horrekin lotuta, 2021ean, informazio-iturri baliodunak mantendu edo hobetu ahal izateko landa-lana egiten saiatuko gara, etorkizunean egiten diren ebaluazioak bere garaian egituratzeko.

Bestetik, 2022. urtea amaituta ebaluazio orokorra egiteko ahalegina egin behar den arte, Batzorde Teknikoak azterketa partzialak edo sektorialak egitea edota alderdi zehatzak osatzen nahiz garatzen dituzten gai zehatzak aztertzea du xede. Horri dagokionez, hainbat batzordekidek egindako proposamenak aintzat hartuta, zenbait arlo interesgarritzat jo ziren, honako arau hauek onartu edo indarrean jarri ondoren sor litezkeen eraginen ebaluazioari begira:

- 2016/1104 Erregelamendua, 2016ko ekainaren 24koa, izatezko bikoteen ondarezko ondorioei buruzkoa, eskuduntzaren, ezargarri den legearen eta ebazpenen aintzatespen eta betearazpenaren eremuetan kooperazio indartua ezartzen duena; eta 2016/1103 Erregelamendua, 2016ko ekainaren 24koa, ezkontzaren araubide ekonomikoei buruzkoa,

eskuduntzaren, ezargarri den legearen eta ebazpenen aintzatespen eta betearazpenaren eremuetan kooperazio indartua ezartzen duena: 2019an jarri ziren indarrean.

- 6/2021 Legea, apirilaren 28koa, Erregistro Zibilari buruzko uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen duena (eta azken horren gainerako aldaketak): 2021eko apirilaren 30ean jarri zen indarrean.

- 8/2021 Legea, ekainaren 2koa, desgaitasunen bat duten pertsonei beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen duena: 2021eko irailaren 3an jarriko da indarrean.

- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa.

Horrela, azken aldi horretan indarrean zegoen zuzenbidearen ebaluazio- eta azterketa-lanak bat egin zuen, hein batean, Batzordeari esleitutako eginkizun jakin batekin: Estatuko eta Europako arau-esparruarekin lotutako zaintza eta alerta goiztiarra gauzatzea, euskal zuzenbide zibilari eragin baitiezaioke.

Azterketa sektorialak edo puntualak ardatz hartzeko eta aldizkako ebaluazio berri baten hasiera geroratzeko arrazoi nagusia izan zen hurrengo ebaluazio-aldiak, funtsean, 4 urtekoa izan beharko zuela erabaki zela (hau da, 2019tik 2022ra). Hala, etorkizunean ebaluazio-ahalegin orohartzailea edo espektro zabalekoa aldian-aldian errepikatu beharko balitzateke ere, aldien arteko konparazioak egitea erraztuko luke. Hori dela eta, 2022an epe hori amaitu arte ezin izango direnez horri buruzko datuak bildu, azterketa sektorialak egingo dira, harik eta ebaluazio hori abian jarri arte (2023an).

Zehazki, 2021eko bigarren seihilekoan, Batzorde Teknikoak testu konparatuen berariazko lan bat egin zuen (aldez aurreko legeriarekin alderatuta), eta berrikuntzak identifikatu zituen, lehen aipatutako legeriarekin alderatuta (berrikuntzen azterketa, kontuan hartuta 2016/1104 Erregelamendua eta 2016/1103 Erregelamendua ebaluazio-dokumentu luzean aztertu zirela). Batzorde teknikoaren lan hori kide guztiei helarazi zitzaien unean-unean.

- **Euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea**

Batzordeak xede du indarrean dauden xedapenak sendotzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, bai eta EAEko legeria une bakoitzeko errealitate sozialera egokitzea ere. Hori kontuan hartuta, apartatu honetan azpimarratu nahi dugu, 2021ean, hainbat urteko lanaren ondoren, Gobernu Kontseiluak 2021eko ekainaren 1ean onartu zuela Euskal Kasazio Errekurtso Zibilaren Legearen proiektua; Eusko Legebiltzarrak 2022ko maiatzaren 19an onartu zuen, ia aho batez, Euskal Kasazio Errekurtso Zibilari buruzko 4/2022 Lege gisa.

Jakina denez, eta batzorde honek Legebiltzarrari bidalitako aurreko txostenean sakon aztertu zenez, proiektu hori Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordean sortu zen, eta, beraz, lehen lorpen handitzat hartzen dugu.

Proiektu hau bultzatu zuten arrazoiak labur-labur gogoratuz, barne hartuta Batzordean izandako sorrera eta estatu mailako legea berdin aplikatzeak eragindako zailtasunak (Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak bere garaian aipatu zituen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak arlo horretan emandako epai kopuru urrian zehaztu ziren), proiektuaren helburua da kasaziora iristen diren kasu gehiago egotea. Baina ez gatazkak sustatzeko asmoz, baizik eta, gertatzen direnean, gure Justizia Auzitegi Nagusiak horien inguruko irizpena maizago eman dezan, azterketa judizial eta doktrina gehiago izan ditzagun eta, hala, gure euskal zuzenbide zibila aberastu eta hobetu ahal izan dezagun.

Azpimarratu behar da lege-proiektuaren edukia –orain arte esandakoagatik, nabarmena da modernizatzeko asmoa duela– bat datorrela, nagusiki, 2019ko osoko bilkuran batzorde honi aurkeztu zitzaionarekin, salbu eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoaren gomendioetara egokitzen denean, neurri handi batean, legearen zioen azalpena indartzera mugatzen baitira.

Proiektuaren eduki horretan, funtsean, «gutxieneko zenbatekoaren» betekizuna ezabatu da, gai guztien kasazio-errekurtsoa eskuratu ahal izateko, zenbatekoa edozein dela ere, betiere kasazio-interesaren baldintza betetzen bada. Halaber, «kasazio-interesaren» arrazoia ahalik eta gehien sinplifikatzea, argitzea eta zabaltzea ahalbidetuko du. Eta, behin eta berriz aipatzen den «kasazio-interesaren» barruan, adibide gisa nabarmentzen da berariaz onartzen dela doktrina aldatzeko beharra, aplikatu beharreko denboraren errealitate sozialaren bilakaeraren ondorioz. Jurisprudentzian jasota zegoen arren, Auzitegi Gorenaren lehenengo salaren kasazio-arloko erabakiak aplikatzearen ondorioz, ez zegoen oraindik Legean jasota, eta lehen mailako elementua izango da, gure euskal zuzenbide zibil maitearen gizarte-errealitatera etengabe eguneratzen eta egokitzen laguntzeko; izan ere, gure lege zibil guztien zioen azalpenetan asko erreklamatu dute.

Apartatu honetan bertan nabarmendu behar da, halaber, 2021ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak jakinarazi zigula izapidetzen ari zirela Haurren eta nerabeen eskubideen Legearen aurreproiektua eta haien bermea, prebentzioa eta babesa. Horren bidez, indargabetu eta ordeztu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legea. Hori kontuan hartuta, Batzorde Teknikoan lantalde bat osatu zen lege-proiektua aztertzeko eta EZZBren txostena prestatzeko. Bertan, batzorde honen aurreko dokumentuetatik ateratako oharrekin eta Arartekoak haurren arloan egindako txostenak eta beste dokumentu batzuk kontuan hartuta egindako balorazio batzuekin batera, hemen dauden batzordekideek egindako ekarpenak sartu dira.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak EZZBren lege-aurreproiektuari buruzko txosten-eskaera egin zuen 2022ko apirilaren 25ean, eta behar bezala eta garaiz erantzun zitzaion, Batzorde Teknikoaren barruan egindako 1/2022 txostenaren bidez.

Azkenik, Eusko Legebiltzarreko lege-proposamenei dagokienez, 2021ean, Legebiltzarreko izapidetze-fasean jarraitzen zuen «Gurasoen banantze edo haustura-kasuetako familia-harremanei buruzko ekainaren

30eko 7/2015 Legea aldatzeko» lege-proposamenak. EH Bildu legebiltzar-taldeak aurkeztu zuen, eta batzorde honek orain arte ez du horri buruzko kontsultarik jaso Legebiltzarreko Ganberatik (Batzordearen sorrera-legearen eta estatutuen bidez horretarako berariaz gaituta badago ere).

- **Estatuko eta Europako araudi-esparruan zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea**

2021eko ekitaldian, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea adi egon da, bai batzordekideen bitartez bai Komite Teknikoaren bitartez, euskal zuzenbide zibilak araututako erakundeei eragin diezaieketen arau-proiektuei, eta aldaketa eta proiektu posibleak jakinarazi dizkio batzordeburuari.

Horri dagokionez, indarrean dagoen zuzenbidea berrikusteko, ikertzeko eta aztertzeko eginkizuna aztertzean adierazi denez, Batzordeak hainbat azterketa konparatibo egin zituen 2021eko bigarren seihilekoan, bai estatu mailako bai Europa mailako berritasun nagusiei buruz, euskal zuzenbide zibilean izan zezakeen eraginari dagokionez, eta, horrela, bat egin zuen zaintza goiztiarraren eginkizunarekin.

Era berean, 2021. urtean zehar eta 2022ko ekainaren 30ean egindako azken osoko bilkuran, berrikuntza nagusi gisa, Estatuko zuzenbidearen ikuspegitik, abenduaren 15eko 17/2021 Legea onartu zela jakinarazi zen (17/2021 Legea, abenduaren 15ekoa, Kode Zibila, Hipoteken Legea eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituena, animalien erregimen juridikoari dagokionez.

Bestalde, ekitaldi horretan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren esku egon da etengabe, edozein aholku-eskariri erantzun egokia emateko, bereziki, Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren izapidetzea dela eta kontsultak egitean.

Hala ere, denbora horretan ez du erakunde horien kontsultarik jaso kontzeptu horiengatik.

- **Batzordearen beste eginkizun batzuk eta jardueren antolaketa eta kudeaketa**

Zuzenbide Zibilaren Batzordearen eginkizunen artean sartzen da, baita ere, zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne. Era berean, euskararen erabilera sustatuko da euskal zuzenbide zibilaren adierazpen-hizkuntza gisa, eta bere terminologia juridikoa aztertu, bultzatu eta zabalduko

da, Europan eta Estatuan oro har onartzen diren araubide onaren printzipioak bermatuta.

Hori horrela, 2021eko ekitaldian, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea etengabe egon zen Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren esku, adierazitako gaiei buruzko edozein aholkularitza-eskaerari erantzuteko.

Hori guztia, are gehiago eta Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen beraren lanetan eta, bereziki, egin zituzten arau-zirriborroetan edo proiektuetan kontuan hartu beharrari kalterik egin gabe. Horien artean, ekitaldi hauetan zehar euskal kasazio zibilaren lege-aurreproiektuaren proposamenaren inguruan egindako lanak nabarmendu behar dira.

Goian aipatutakoez gain, estatutuetan honako zeregin hauek ere esleitzen zaizkio Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeari (idazkari nagusiak behar bezala bete ditu):

- 4. eta 11.3.b) artikuluen arabera, idazkari nagusiak koordinatu behar ditu Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen kanpo-harremanak eta harreman instituzionalak. Hau da, lankidetza bultzatu eta sustatu behar du Batzordearen antzeko izaera duten zuzenbide zibilean espezializatutako edo kodetzearen arloko beste kontsulta-organo batzuekin, Espainian, Europan edo nazioartean. Xedea izango da esperientzien trukea bultzatzea, elkarren jardunbide egokiak ezagutzea eta tresna praktiko edo informatikoak garatzea, edo interes komuneko gaietan beste lankidetza-arlo batzuk garatzea.

  2021ean ez zen aurrerapen aipagarririk egin apartatu honetan, 2018tik 2020ra bitarteko ekitaldiei buruz Eusko Legebiltzarrarentzat egindako azken txostenean adierazitakoez gain.

- Estatutuen 11.3.j) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, idazkari nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuari buruzko funts dokumental eta bibliografikoaren sorrera gainbegiratu beharko du.

  Apartatu honetan ere ez zen aurrerapen aipagarririk egin 2021ean; dena den, ordura arte bildutako materialen zatirik garrantzitsuena (zehazki, indarrean dagoen legeria eta legeria historikoa, eta batak eta besteak aplikatzen duten jurisprudentzia) Batzordearen webgunean sartzeko beharrezkoak ziren lanei ekin zitzaien. Une honetan prestaketa-fasean dago, Administrazio Orokorreko organo eskudunen barruan.

∞

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko Idazkaritza Nagusia
Vitoria-Gasteiz.
2022ko azaroaren 22a.

Donostia 1 VITORIA-GASTEIZ 01010
Tel.: 945 01 86 30 ddlycn@euskadi.eus